



Jose Antonio Ardanza, lehendakaria, Salbera joaten, joanden larunbatean.

Donosti'ko pesta-ondorean

Uri maitea izen da beti Donosti'ko uri polit-ederra Naparroa'm bizi gerantontzat. Orregatik, gurean gertatua belitz bezala ikusi oi dugu Donosti'n gertatzen den guzia.

Aurten ere zai giñauden Donosti'ra begira: Amabirjiña'ren pesta-bezperako "Salbera" zer gertatu zitekenaren zai. Eta gertatu da urtero gertatu oi dena: Santamaria elizeko "salbera" zijoazten Agintariak -Ardantz Lendakaria, Elorza Donosti'ko Alkatea, Galdos Gipuzkoa'ko Diputazioaren Lendakaria eta gaiñerako guztiak-, urtero bezala arrikatuak izen direla.

Ta, ori garrantzi aundiko eta gaiztotasun larriko gauza delako, naitanaiezkoa dugu, une batez bere errañak aztertzen ematea.

- Nor dira arrikatzalleak? Gazte sail bat, ez oso aundia, baiña, alare, aundiegia orrelako txarkeri baterako. Gazte oietatik asko, oraindik umeak direla ere esan ditek.

- Nor dire gazte ta ume oiek okerkeri lotsagarri ortara bultzatzen dituztenak? Ori, danok ondo dakigun gauza da: KAS eta

KAS'ek dantzatzen dituen talde guztiak, ETA bera eta baita HB ere barruan direla.

- Zeren aurka egiten dute astakeri zikin ori? Ez "salbearen" aurka. Salbea pakean abestu oi du beti Donosti'ko Orfeoia, ots, munduan diren orfeoirik onenetakoak. Santamari elizaren barruan ez da beñere deus gertako. Nolakoak diren ez ba'geneki, gure KAS'inoak Maria'ren Alabak bezain eraspen-tsua direla esango genuke, Amabirjiñaganako debozioan.

- Noren kontra ba, arrikatze nazkagarri ori? Agintaritzaren aurka!

- PNV edo EA'ko abertzaleen aurka? PSOE'tarren edo PP'koen aurka? Danen aurka. KAS'i ez zaio ajolik Agintariak nor izen edo zer alderdikoak izen. Arrikatze negargarri ori, agintariaren aurka ez baiña AGINTARITZAREN aurka egiña izaten bait da.

- Zergatik? KAS eta KAS'en esanera ari diren guztiak, ETA bera eta HB ere barruan direla, egiazko komunistak direlarik, egiazko anar-

kistak ere bai bait dire. Ez dakit badakizun, irakurle, Marx ere anarkista zala. Oso denbora gutxi irau berra zen "Proletarioen Diktaduraren" ondorean, betirako anarkismoa jarri bear zela esaten bait zuen. Betiko, anarkismoa mundu guzian.

- Donosti'ko "salbera" bidean, Agintariak arrikatze ortan erakusten du KAS'ek bere egiazko aurpegia: Anarkismoa. Baña anarkiaren aurretik bearrezkoa bait da "Proletarioen Diktadura", eta "diktadura" ori soilki Iraultza Nagusiak ekarri bait dezake, eta ortarako bearrezkoa bait da iraultza-giro bat sortzea... orra or Donosti'ko arrikatze orren azken- arrazoiak: Agintariak era lotsagarrian jarriz, eta izkamilla sortuz, jendea nazkatuz, IRAULTZARAKO GIROA prestatzea.

- Iraultza-giroa- Iraultza Nagusia - Proletariaren Ditartza - Komunismoa. Komunismoa anarki utsa bait da Karlos Marx'en ustez.

Latiegi'tar Bixente

Berri ona

Geure burua ezagutu «Norengana joango gera?» (Jn. 6,60-69)

GIZAKIA elkartean eta arremetan bizitzeko jaioa da. Bakarrik eta bakarka ezer gutxi egin dezake gizon-emakumeak. Lagunak, adiskideak bear-bearrezkoak ditugu. Baiña lagun guztiak ez dira neurri berean lagun eta adiskide. Egun ezin daiteke edorengan fidatu. Gauzak ondo eta jakinaren gainean egin bear dira. Eta lenengo izketaldian ez da ezagutzen inor.

Ezin bestekoa da, orde, norbaitekin arremetan jartzeko eta, arremetan onak izateko, geure burua eta izatea ezagutzea. Neure buruaren jabe naizen ainean bakarrik izango ditutarreman jatorrak eta sakonak urkoarekin.

Neure buruaren ezaupide onetan iru joera izan ditzaket: Ni neu ez ulertzea, ni neu ez onartzea eta ni neu ezagutu eta naizen moduan onartzea.

Irugarren joera edo jarrera au da preziatuena eta garrantzitsuen. Ontan landu eta saiatu bear gure gure bizitzan.

Nork bere burua ezagutzeak askatasunera bideratzen du bat. Eta bat ezagutzen denean urkoarenganako bideak irekiak izatenditu. Izan ere, zerbait

eman aal izateko, noski, artzeko prest izan dear dugu. Artzeko kapaz ez baldin bagera, ezin eman ezer.

Arreman sakonak norbaitekin izan nai baldin baditugu iru gune aukeratuak izan bear ditugu: burua, biotza eta erraiak. Gizakiak iru gune auetariko ezer ezin dezake baztertu edo aaztu.

Oitura aundia dugu, eziketaren ondorioa izan daiteke, burua bakarrik erabiltzea beste biak aazturik. Jainkoa ezin daiteke maitatu buruarekin bakarrik, biotza eta erraiak ere inportanteak dira Jainkoa maitatzeko. Burua bakarrik erabiltzen dugunean pertsona iraganean galtzen da edota etorkizunean izan ditzakeen galbideetan. Eta oraiñik ez duen gizakia ez da gizakia. Pedro-ren aon jartzen diren itzak "norengana joango gera"? ezin erran Jesus ezagutu gabe. Eta Jesus ezin maitatu ezagutu gabe, eta ezin ezagutu ta maitatu arremetan jarri gabe. Ezin jarri arremetan gee burua ezagutu gabe. Opor egunak egokiak dira geure burua ezagutu aal izateko zenbait lan eta ariketa egiteko.

Artzalluz'tar Joxemari

Baztandarrak Ameriketara

Joan den Abustuaren 13-an, Elizondo'ko Arizkunenean hitzaldi interesgarria izan ginuen, Alberto Aldai jaunak emana. Gai honi buruz mintzatu zitzaizkion: 'BAZTANDARRAK AMERIKETARA'. Mintzaldiaren gaiari buruzko diapositibak erakutsi zitzaizkion. Baztandarrak Ameriketara hamaseigarren mendetik dator eta garai haietan nolako bidaiak egiten ote zituzten, itxasontzi txarretan, bidai nekagarria eta luzea, hainbertze egun eta hilabete osoa ere Amerika erdietsi arte, zer pairamenak yasanote zituzten Ameriketara yoa ziren lehenbiziko baztandarrak.

Ager ditzadan Ameriketara yoa ziren lehenbiziko baztandarrak eta lurralde haietan kargu haundiak eta ohoregarriak izan zituztenak: Pedro de Urtsua, Arizkongoa. (1525-1561) Urtsua Jauregiaren sortua. "El Dorado" eta Omaguako Gobernadore. Lope de Agirrerren aginduz hil zuten 1561-ko urtarrilean. Martin Elizakotxea, Azpilkuetakoa (1679-1756) Kubako Gotzaia (Apezpikoa).

Pedro Elizalde Urtsua, Arizkongoa. 1677 urtean hilla Kolonbiako gerretan. Pedro Urtsuaren yendakie zan. Pedro Mendiñeta Muzkitz, Elizondoko lstekonekoa. Nueva Granada, Marakaibo, Karkasko "Virrey" izana. 1825-an hil zen 89 urtetan.

Agustin Jauregi Aldekoa, Le-

karoakoa. (1711-1784). Oharizko Jauregikoa. Txileko Lendakari eta Capitan General (1773) Peruko "Virrey" ere. Liman hil zen 1784-an. Juan Antonio Barreneche, Lekarozkoa. Frantziskotarra, hindioak hil zuten "Rio Colorado" (1750-1781). Agustin Irubide, Gartzain. (1783-1825). Mexikoko lehenbiziko Enperadore, 1822-ean. Franzisko Joakin Iriarte, Gartzain. Baztango Miserikordiarren laguntzale haundiena (1855). Pedro Etxenike Etxenike, Arizkongoa. Latakikoa. Txileko Lendakari izana.

Jaime Urrutia, Elizondo. Herriari aunitz lagundu zion, urak ekartzeko gehiena lagundu zuena. Braulio Uriarte, Elizondokoa. Herriaren alde aunitz egin zuen eta hoiaren artean pilota leku ederra "Fronton Iriarte". Baztandar aunitz badira Ameriketara, ospe haundiko gizonak alderdi hartan negozio haundiak dituztenak. Amerika guzian barreiatuak daude baztandarrak, Arjentinan, Uruguayan, Txile, Kalifornia, Mexiko eta Erresuma gehiagotara ere. Mexiko eta Txile dira baztandarrak gehienik nabarmentzen direnak eta batez ere Mexiko. Baztandarren izena Erresuma hortan aipagarria da.

Alberto Garai jaunaren hitzaldia eta erakusketa oso interesgarria izan da.

M. Izeta

Euskara Bera'n Lanbideko ikastetxean

Bera eri polita delarik, ikastetxe ederrak ba ditu. Batez ere aundiena, "TOKI ONA" Lanbide Institutoa dugu. Nolako euskal giroa dagon or jakin nai nuen. Ikastetxea ikustera urbidu nintzen. Jose Maria Irazoki zuzendaria ikusita, berri aunitz eman zitkidan.

Ikastetxe onen asiera aspaldiko lana da. Lenengo urratsak 1967'garren urtean eman zituzten. Orduan, langintzako ikastetxe bat bezala asi zen. Zerbait egin bearra zegoen. Erriko eskola amaitzerakoan geiago ikasi nai zutenak, erriatik alde egin bearra zeukaten. Luis Aizpuru apez gaztearekin borts mutil Beratarak bildu ziren, baimenak eskuratu ondotik ikastetxe berria erai ki zuten. Borts irakasle sortzaille oyetatik bat gaurko zuzendaria zen.

Gaur berriz 369 ikasle dauzkate, Bidaso Erreka'ko borts iriariatik datozkie gazteak. Neska mutil oiek amalau-emezortzi tarte orren urtekoak dire gaur. Lege berriarekin amabi urtekin artuko dituzte, emeretzigarren urtea bete arte.

Euskarari buruz zer? Ikastetxe-ko ate ondoan nintzela, nere ondolik joan ziren neska mutil taldea, euskaraz mintzatzen. Eizeko gaia zerabilkiten elkarizketan. "TOKI ONA" delako lanbide ikastetxe ontan, 1978'garren urtean asi ziren sartzen euskara, izkuntza bezala. 1986'garren urtean -D eredu jarri zuten; nai zutenentzat dena euskaraz. Gaur berriz 1994'garren urteko ikastaroan.

«A» eredu 238 ikasle daude eta «D» eredu berriz 131 ikasle. Gaztetxo berriak etortzerakoan eredu «D» geitzen joango da. Borts irietako ikastetxetan, ttipienetatik asita

«D» eredu txapeldun agertzen da. Etorkizuna bide ortik datorkiyo. Naiz ikasleen gyrasoak geye-



José María Irazoki.

nak erdaraz egin, aurren giroa gero ta geyago euskalduna nabaritzen da; zuzendariak ala dio. Ikastetxeko euskal kutsua zoragarria da; gaztetxoak euskaraz mintzatzen ez dire geyago lotsatzen.

TOKI ONA lanbide institutua giza-seme elduak euskalduntzen baita ere, alegintzen da. Aspalditik daukate gaueskola lanean. Urtero berrogeiren bat ikasle elduak datorzkie. Nor dugu Jose Maria Irazoki zuzendaria? Alkayaga auzoko Martinetxeberria delako etxean, 1941'garren urtean sortu zen.

Bera'n Maristetan egin zituen ikasketak. Iruña'n borts urte igaro zituen Salesianosetan. Andik Donosti'ra Ingeniero Teknikoen Ikastetxera lau urterako joan zen. Euskara berriz E.U.T.G. eta Udarako Euskarerri'ko Ikastetxe Nagusian landuzuen. Irakasle bezala, ikastetxe onen asieratik dabil lanean; amaika urte berriz zuzendari bezala. Ala ta gutziz, matematikak euskaraz, baita er, ematen ditu gaur oraindik. Etxean berriz, euskaraz mintzatzen da beti. Bidasoko bazter ontan maitate dute gure izkuntza zarra.

Latxaga